

Amets Sierra Godinez

B maila • 3 aipamena

Amets Sierra naiz eta 14 urte ditut eta La Salle ikastetxean ikasten dut.

12 urte nituela aipamen saria irabazi nuen D mailan.

Asko gustatzen zait irakurtzea, nobela beltza deritzon generoa batez ere.

Hala ere aurten izan da ohartu naizenean idaztea oso gustuko dudala.



BESTE MUNDUKO HILKETA BAT

Goizeko bostak, mugikor bat soinu arraro bat egiten, etxe guztian entzuten da. Logela nagusian Ainhoa, neska argala eta otxarra, mugikorra hartzen saiatzen, bere ondoan bere senarra Alessandro gizon italiar bat, altua eta bizar polit batekin. Ainhoa mugikorrari erantzuten dio, mugikorraren beste aldean bere laguntzaile-inspektoreorde Ander Agirre, oso gizon ederra eta gaztea. Hilketa bat dutela esaten dio eta helbidea ematen dio, Ainhoa korrika eta presaka janzten da eta bere senarra agurtzen du muxu bat emanez.

Bere laguntzailearen helbidera iristerakoan, polizia betetako parking bat ikusten du, parking hori basoan dago kokatuta, bere autotik jaitsi eta parking-eko atean, bi uniformedun polizi daude, Ainhoa identifikatzerakoan sartzen usten diote.

Barruan Agirre inspektoreordea, Toledo epailea gizon zahar eta elegantea eta Garrido auzitegiko medikua gizon gazte bat eta ongi ezitako gazte bat, Agirre parking guztitik gidatzen dio, eta bere begiak gizon baten gorputzarekin topatzen dira.

- Andres Rodriguez- en gorputza da.- esaten du Aguirrek.

- Euskal mitologiako idazlea?.-galdetzen du Ainhoak.

- Bai.- erantzuten du.

- Mari-rekin hitz egin nahi dut.-

- Hor atzean dago.-erantzun Aguirrek.

Ainhoa Mariarengana joan zen, Maria ez zuen sinisten, bera zen lur horien jabea eta kasu honen susmagarri nagusia, beldurtuta zegoen baino frogatu egin behar zuen berak ez zuela ezer egin, errukigabea zela.

- Maria sinisten dizut, baino, orduan zein izan da?.- galdetu zion Ainhoak.

- Ez dakit, ez dut ezer ikusi.- erantzun zuen Mariak negarrez.

- Baina norbaitetaz....-Hasi zen Ainhoa baino Mariak moztu egin zion.

- Aker, Aker beltz bai.- baieztatu zuen.

Ainhoa forensearengana joan zen, gizona nola hil zen galdetu zion.

- Itotzen.- esan zion.-soka batekin.-gehitu zuen.

- hemengo gauzak ileak dira?- galdetu zuen Ainhoak.

- Bai, analizatu egingo dugu.- esan zuen poltsa bat hartzen.

- Ander, Aker beltzari deitu eta komisariara eraman.-esan zuen Ainhoa-beste guztiok hau txukundu eta etxera joan.-gehitu zuen.

Ainhoa kotxean sartu zen eta bere etxera joan zen, han bere senarra bazkaltzen zegoen, kafe bat egin zion eta biak batera bazkaldu zuten, bat batean norbaitek atea jo zuen, Ainhoak atea ireki zuen eta bere lehengusua, Agara. Agara lamia bat zen oso neska jatorra zen eta beti laguntzeko prest zegoen, bere osabak adoptatu zuen txikia zenean. Rodriguez-en kasuari buruz galdetu zion, oso ondo eramaten ziren, eta baimendutako gauzak kontatu zion.

Alessandrokin ez zen oso ondo eramaten, Alessandro gauza arraro bat zeukala esaten zuen eta Ainhoari esaten zion bakoitzean borrokan bukatzen zuten.

Ordu bat eta gero bere lehengusua, bere etxera joan zen. Ainhoa mugikorra hartu zuen eta Ander-eri deitu zion.

- Nagusi, Aker beltz desagertu egin da, lurraldeko polizia, leku guztietatik bilatzen ari dira.- jakinarazi egin zion

- Oraintxe noa.- Esan zuen Ainhoak.

Komisarian sartzerakoan, Garrido auzitegiko medikua zegoen itxoiten. Laborategira joatea proposatu zion, ilearen analisisa ikusteko. Laborategia komisarian bertan zegoen, beheko pisuan,ailegatzerakoan neska gazte bat zegoen mikroskopio baten aurrean apunteak hartzen.

Denbora asko pasatu zuten laborategian, baino, analisiak bukatu zuten. Garrido informea hartu zuen eta irakurri zuen.

- Informe honen bitartez, bla,bla,bla,bla, ile hauek Aker Beltz-aren dira.-irakurri zuen.- baino, hatz-azterna batzuk daude, ezin izan direna kointzidentziarik aurkitu.

- Orduan, beste pertsona bat dago sartuta kasu honetan?-galdetu zuen Ainhoa.

- Bai-baieztatu zuen Garridok.

Bat batean mugikorraren soinua entzun zen, Aguirre zen.

- Nagusi, Aker Beltz agertu da bahituta zegoen, txabola batean basoaren erdian.-Esan zuen Aguirrek.

- Nola?Ondo dago?-galdetu zuen sinesgogor.

- Bai mediku bat dago berarekin,baina, ondo dago- Erantzun zion

Ainhoak komisariara eramateko esan zuen, ez zuen sinisten, baino horrela zen Aker beltz, ez zen kasu honetako erruduna, beste norbait zegoen sartuta .

Aker beltz komisariara ailegatu zen eta logela batean sartu zuten.

- Zerbait gogoratzen duzu?-Galdetu zuen Ainhoak.

- Ez, txori txiki bat zaintzen nengoen, eta bat batean, lurrean nengoen eta ezin nuen mugitu, eta gero ezer ez det ezer gehiago gogoratzen.-deklaratu zuen.

Ainhoak txabola horren jabea bilatzeko eskatu zuen, eta bitartean kasua errepasatu zuen, dena basoaren erdian gertatu zen, gorputzean zeuden ileak Aker beltz-era eramaten zuen, eta Mari ere sinetsita zegoen, baino Aker beltz ezin izan zen kasu honetako hiltzailea.

Aguirre bulegoan sartu zen.

- Txabolaren, jabearen izena daukagu baino ez da benetazkoa- Esan zuen.

- Nola deitzen da?- galdetu zuen Ainhoa.

- Elodi Martinez.-esan zion.

Ainhoak izen hori entzunda zuen, memoria egin zuen, eta erantzunarekin egin zuen topo.

Bere lehengusua, Agara, erabiltzen zuen jolasterakoan. Ezin zuen sinetsi, bere lehengusua izan zen.

Korrika atera zen komisariatik bere lehengusuaren etxera, eta ibaira iristerakoan, atxilotu zuen, lamia ez zegoen ados, gizon horrek merezita zuelako esaten zuen, - mitologiarekin ezin da jolastu!!- esan zuen.

Kartzelan bizitza guztia pasatu zuen.